

FUNTSEZKO JARDUERAK

Errealitate birtualeko betaurrekoen garapenerako eta funtzionamendurako, gure saioetan erabiliko ditugun irudiak eta bideoak sortu beharko ditugu. Doako lehen saioan, pazienteek dituzten nahasmenduen xehetasun guztiak jasoko ditugu, eta, horrela, talde tekniko bat arduratuko da horrelako irudiak sortzeaz.

Gure klinikan psikologo espezializatuak ditugu, bezeroari bere behar guztietan laguntzeko, lehen aipatutako errealitate birtualeko betaurrekoen eta bere trebetasun profesionalen bidez. Talde teknikoak psikologo espezializatuekin lankidetzan estuan lan egingo du, errealitate birtualeko inguruneak egokiak direla eta helburu terapeutikoak betetzen dituztela bermatzeko.

Hitzorduen ordenari dagokionez, idazkari bat izango dugu, gure psikologo bakoitzaren eguneroko plana osatzeaz arduratuko dena. Horretarako, egunean zehar iristen zaizkigun hitzorduei erantzun beharko die, bai telefonoz, bai posta elektronikoz, bai web orritik. Bestalde, enpresak egin behar dituen ordainketa guztiak gure idazkari espezializatuak egingo ditu.

Marketinaren arloan arreta jarrita, gure sare sozialak (instagram eta tiktok, hain zuzen ere) eramango dituen langile-talde bat dugu. Bere lana eguneroko argitalpenak sortzea izango da, psikologiaren balioa eta pertsonen garapenerako laguntza jasotzeko beharra azalduz. Klinika sustatzea eta bezeroen eskaera berriak jasotzea du helburu, haien beharrak konpontzeko. Horretaz gain, gure psikologo-taldea arduratuko da osasun- eta hezkuntza-zentroetara joateaz, pertsonak psikologiaren beharraz eta errealitate birtualaren funtzioez kontzientziatzeko..

InnovaMind VRN arduratzen gara bezeroaren ongizateaz; horretarako, gure lokaleko instalazioak erabat garbi mantendu behar dira. Hori betetzeko, garbiketa-ekipo bat dugu, astean behin klinikara etortzen dena itxiera-ordua baino lehen, bere lana betetzeko.

LEHENTASUNAK

1.Hasierako ebaluazioak eta etengabeko jarraipena:

- Funtsezkoa da zehaztea zein tratamendu eta programa izango diren eraginkorrenak eta bezeroen gogobetetasuna lortzen lagunduko digutenak.

2.Saio terapeutikoak errealitate birtualarekin:

- Eskainitako zerbitzuaren oinarria; eguneroko jardueren erdigunea hartu behar du.

3.RV programak garatzea eta pertsonalizatzea:

- Bermatzea ingurune espezifikoak eta eraginkorrak izango direla pazientearen beharretarako.

4.Taldearen gaikuntza:

- Lehiakortasuna eta ezagutza eguneratua mantentzeko epe ertaineko lehentasuna.

5. Marketina eta hedapena:

- Funtsezkoa da paziente berriak erakartzeko eta klinikaren irudia sendotzeko gure sare sozialen bidez (Tik tok, Instagram...)

6. Barne-kudeaketa eta antolaketa:

- Lehenetsuneko egunero, lantaldearen eta lan-fluxuaren funtzionamendu egokia bermatzeko.

